

PERTSONA LANGABEAK KONTRATATZEKO UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN DIRU-LAGUNTZEN OINARRIAK

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO LEHENDAKARITZAK 2015EKO ABUZTUAREN 18AN ONARTUTAKO OINARRIAK, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAK EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAREN ARGITARA (LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIAREN EBAZPENA, 2015EKO MARTXOAREN 25EKOA, EHA 2015-03-31, 61. ZK.; ESPEDIENTE Zk.: R/15-LPE-47G).

Gure eskualdeak bizi duen krisialdiaren eta horren ondorio den langabezia tasa altuaren ondorioz, Urola Kostako Udal Elkartearentzat lehentasunezkoa da lanpostuak sortzea erraztu eta bultzako duten ekintzak sustatzea.

Hori dela eta, oinarri hauek arautzen duten ekimenaren bidez, enplegurako politika aktiboak indartu nahi dira, bereziki erreparatuz gazteen eta gizatalde berezien enpleguari, eta, ondorioz, diru-laguntzak emango dira eskualdeko enpresa txiki eta ertainek langabeak kontratatzea sustatzeko.

OINARRIAK

1. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honetako oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen helburua da laguntza ekonomikoak ematea eskualdeko (Aia, Getaria, Orrio, Zarautz edo Zumaiako) enpresa txiki eta ertainei, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa izena emanda dauden pertsona langabeak kontratatzeko.

2. PROGRAMAREN AURREKONTUA ETA FINANTZAKETA

Oinarri hauek arautzen duten diru-laguntzen deialdia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua finantzatzen du (enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2015 ekitaldiko diru-laguntzen deialdia; Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren Ebazpena, 2015eko martxoaren 25ekoa; espediente zenbakia R/15-LPE-47G).

Urola Kostako Udal Elkarteak emango dituen diru-laguntza hauetarako 102.000,00 euroko aurrekontu publikoa erabiliko da (horietatik 97.379,07 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua finantzatuko ditu eta gainerako 4.620,93 euro Urola Kostako Udal Elkarteak). Deialdi honek arautzen dituen diru-laguntzak honela banatuko dira, kontratuaren iraupena eta lanaldia eta kontratatutako pertsonaren profila kontuan hartuta:

Iraupena	Lanaldia	Gizataldea	Kontratuak
6 hilabete	Osoa	Zehatza	4
6 hilabete	Osoa	Beste gizataldeak	11

Oinarri hauetako seigarren oinarriko 2. atalean zehaztutako baldintzak betetzen dituzten pertsonak gizatalde zehatzeko hartzailetzat joko dira. Gainerakoak sartuko dira beste gizataldeak izeneko multzoan.

Diru-laguntzen deialdi honekin ez badira agortzen oinarri honetan ezarritako aurrekontu-atala eta kontratu kopuruak, Urola Kostako Udal Elkarteak beste deialdi bat egin ahal izango du eskabideak aurkezteko.

3. ARAUBIDEA

Deialdi hau arautuko du honako araubideak:

1. Oinarri hauek.
2. Ebazpena, 2015eko martxoaren 25ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena (EHAA 2015-03-31, 61. zk.). Horren bidez argitaratzen da enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2015eko ekitaldiko laguntzen deialdia.
3. Ebazpena, 2015eko ekainaren 17koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Urola Kostako Udal Elkarteari enplegua sustatzeko toki ekintzetarako 2015 ekitaldiko diru-laguntza ematen diona (Lanbide-Euskal Enpleguko zuzendari nagusiaren 2015eko martxoaren 25eko Ebazpenak onartutako deialdia).
4. 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzko lege orokorra (BOE 18/11/2003).
5. 887/2006 Errege Dekretua, ekainaren 21ekoa, diru-laguntzen lege orokorra onartzen duen erregelamendua (BOE 2006/07/25).

4. ENPRESA ONURADUNAK ETA BALDINTZAK

Deialdi honek aurreikusten dituen diru-laguntzen onuradun izango dira ondoko baldintza hauek betetzen dituzten enpresak:

1. Edozein forma juridikoko enpresa edo erakunde enplegatzailea izatea, egoitza Urola Kosta eskualdean duena (Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaián).
2. IAE-JEzN alta emanda egotea eta zerga horren betebeharrak egunean ordainduta izatea, betiere enpresaren jarduerak zerga hori ordaintzea eskatzen badu (Foru Ogasunak egindako ziurtagiria aurkeztu behar da). Zerga ordaintzetik salbuetsita egonez gero, horrela adieraziko da zinpeko adierazpen bidez.
3. Administrazio edo erakunde publikoen edo txikitzat hartzen ez diren enpresen menpeko ez izatea edo horiek %25 edo gehiagoko partehartzerik ez izatea.
4. Zerga eta Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak betetzea.
5. Diru-laguntza publikoak jasotzetik baztertuta ez egotea arau-hausteak egiteagatik.
6. Enpresa kokatuta dagoen udalerriko udal zergak egunean ordainduta edukitzea.
7. Diru-laguntza bidez egindako kontratazioak enplegu-sorrera garbia eragitea enpresan, diruz lagunduak izan diren kontratuen bidez kontratatutako pertsonak enpresan sartu aurreko 3 hiletan enpresak batez beste zuen plantilla osoarekiko. Plantillaren batez bestekoa kalkulatzeko lanaldi osoan urte osoz lan egindako pertsonen kopuruak erabiliko dira. Lanaldi partzialeko langileen kasuan, lan egindako orduen proportzioa hartuko da kontuan.
8. Ezingo da diru-laguntzarik jaso langabeak kontratatzeke Urola Kostako Udal Elkarteak 2014an egin zuen deialdiaren (persona langabeak kontratatzeke 2014ko diru-laguntza deialdia, GAO 2014-06-11, 109 zk.) bidez kontratatutako pertsona berberak kontratatzeke.

9. Eskabideen balorazioan penalizatu egingo dira langabeak kontratatzeke Urola Kostako Udal Elkarteak 2014an egin zuen deialdian diru-laguntza jaso zuten eskualdeko enpresak, oinarriotako balorazio irizpideen taulan agertzen denaren arabera.

5. KONTRATU MOTAK ETA KONTRATUEN EZAUGARRIAK

Diruz lagunduko diren kontratuek honako ezaugarriak izan behar dituzte:

1. Kontratuaren iraupena eta lanaldia
 - a) Kontratuek 6 hileko iraupena izan behar dute gutxienez, eta edozein kontratazio-modalitatekoak izan daitezke. Hala ere, ez dira onartuko prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuak.
 - b) Kontratuak lanaldi osokoak izango dira.
2. Diruz lagun daitezkeen kontratuak izateko, kontratu horiek enplegu-sorrera garbia eragin behar dute, diruz lagunduak izan diren kontratuen bidez kontratatutako pertsonak enpresan sartu aurreko 3 hiletan enpresak batez beste zuen plantilla osoarekiko. Toki-erakundeak egiaztatu behar du hori horrela dela.
3. Ez da kontratatzeke diru-laguntzarik emango enpresaburuaren, enpresa-zuzendarien eta sozietateen izaera juridikoa duten enpresen administrazio-organotako kide diren pertsonen ezkontideak, ondorengoak eta gainerako senideak kontratatzeke, baldin eta haiekin bigarren mailara arteko odolkidetasunezko edo afinitatezko harremana badute, ezta hasieran adierazitako pertsona horiek kontratatzeke ere.
4. Ondoren zehazten den epealdiko kontratazioak lagunduko dira diruz: 2015eko irailaren 1etik 2016ko maiatzaren 15era bitartekoak.
5. Kontratutako pertsonak beren lana egingo dute (edo atxikita egongo dira) eskualdean (Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaian) kokatutako lantokietan.
6. Eskabideen balorazioan lehentasuna izango dute eskualdean (Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaian) erroldatutako pertsonak kontratatzen dituzten eskabideek, oinarriotako balorazio irizpideen taulan agertzen denaren arabera.
7. Kontratutako pertsonak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egongo dira enplegu eskatzaile gisa.
8. Pertsona berari ezingo zaio kontratu bat baino gehiago egin deialdi honen diru-laguntzarekin (edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko toki ekintzetarako laguntzen finantzaketa jaso duten antzeko deialdien diru-laguntzarekin).
9. Diru-laguntza deialdi honetan lehentasuna izango dute, batetik, emakumeak kontratatzen dituzten eskabideek eta, bestetik, 55 urtetik gorako pertsonak kontratatzen dituzten eskabideek (lehentasun hori balorazio irizpideen puntuazioan ezartzen da). Lehentasun horri dagokionez, kontuan hartu eta ezarriko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren 2015-03-25eko Ebazpenak ezartzen dituen ehuneko eta baldintzak.

6. DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOAK

Diru-laguntzen kopuruak honakoak izango dira, gehienez, kasu bakoitzean:

1. Gehienez 6.000 euro sei hileko edo gehiagoko iraupena duen lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko. Dena dela, diru-laguntzaren azken zenbatekoak ezingo du izan kontratatutako pertsonen soldata-kostuen eta gizarte-segurantzako kostuen % 75 baino handiagoa.
2. Diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa 9.000 eurokoa izango da sei hileko edo gehiagoko iraupena duen lanaldi osoko kontratu bakoitzeko, kontratatzen den pertsona gizatalde zehatz hauetakoa baldin bada: diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonak, lehen enplegua eskuratzen duten 35 urtetik beherako pertsonak, edo kontratatu aurreko 18 hiletatik gutxienez 12 hiletan Lanbiden izena emanda izan diren pertsonak. Kasu horretan, diru-laguntzaren azken zenbatekoak ezingo du izan kontratatutako pertsonen soldata-kostuen eta gizarte-segurantzako kostuen % 100 baino handiagoa.

Dena dela, eskatzaile bakoitzak gehienez ere 2 kontratutarako laguntzak eskatu ahal izango ditu.

7. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHAR DIREN DOKUMENTUAK

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen eskaera egiteko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

1. Eskabidea, A eranskinaren arabera egina, behar bezala beteta. A eranskinak honako dokumentuak ditu: eskabidea (A1), kontratazioaren datuak (A2) eta erantzukizun adierazpena (A3). A2 eranskin bat aurkeztuko da eskatutako kontratazio bakoitzeko.
2. Legezko ordezkariaren NANren fotokopia eta ahalordearen eskrituraren fotokopia (beharrezkoa baldin bada)
3. Enpresa eskatzailearen IFZ txartelaren kopia.
4. Enpresa eratzeko erregistro datuen kopia eta eratzeko eskrituren kopia, nortasun juridikodun entitateen kasuan. Nortasun juridikorik gabeko elkarte zibilek kontratu pribatua aurkeztuko dute, Foru Ogasunaren zigilua daramana.
5. IAE-JEZren alta-dokumentuaren kopia eta azken ordainagiriaren kopia.
6. Eskabidea baloratu eta ebazteko unean-unean eskatzen zaizkion bestelako dokumentuak.
7. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean ordainduta daudela egiaztatzeko ziurtagiriak.

8. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Eskabideak aurkezteko epea hasiko da 2015eko irailaren 1ean eta amaituko da 2015eko irailaren 30ean. Oinarriak argitaratuko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Urola Kostako Udal Elkartearen webgunean.

Eskabideak aurkeztu behar dira Urola Kostako Udal Elkartearen erregistro orokorrean (Urdaneta bidea 6, Abendaño industrialdea, 20800 Zarautz), astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara.

Eskabidea ez bada aurkeztu behar bezala edo ez badira aurkeztu zuzenaren oinarrian zehaztuta dauden dokumentuak, eskatzaileari 10 laneguneko epea emango zaio eskabidea osatu edo aurkeztu behar diren dokumentuak aurkezteko. Epe horretan eskabidea osatzen ez badu eskabidea baztertu egingo da. Administrazioak eskabidea baztertzeko ebazpena egingo du berariaz eta jakinarazi egingo dio interesdunari.

Oinarri hauek eta eskabidea egiteko dokumentu-ereduak Udal Elkartearen webgunean eskuratu ahal izango dira (www.urolakosta.org).

Horrez gain, deialdiari buruzko galdera eta informazio-eskaerak telefonoz (943890808) edo emailaz (enpresa@urolakosta.org) egin ahal izango dira.

9. DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Diru-laguntzak emango dira lehiaketa bidez, aurkeztutako eskabideak aztertu eta ondoko taulan ezartzen diren balorazio irizpideak aplikatuta (balorazioan lortutako puntuen arabera), harik eta deialdi honetako bigarren oinarrian ezarritako diru-kopurua edo eta kontratu kopurua agortu arte.

Eskabideen balorazioan bereiz balioetsi eta ebatziko dira deialdi honen bigarren oinarrian zehaztutako kontratazio motak, hala nola, alde batetik, gizatalde zehaztuztat gordetakoak eta, beste alde batetik, beste gizataldeentzat gordetakoak.

Kontratu kopurua agortu eta diru-laguntzarik eskuratu gabe geratzen diren eskabideekin zerrenda egingo da, eskuratutako puntuen hurrenkeraren arabera (puntu gehien dituenetik gutxien dituenera). Diru-laguntza eskuratu duen onuradunen batek ez baditu ezarritako baldintzak betetzen (ez badu zehaztutako epean hitzemandako kontrataziorik egin edo kontratazio horrek ez baditu eskabidean adierazitako baldintzak bete) eta diru-laguntza bertan behera geratzen bada, zerrenda horretako lehenengoari emango zaio diru-laguntza. Kasu horretan, beharrezkoa baldin bada, doitu egingo dira diru-laguntzaren epeak (kontratazioaren epea), betiere oinarriotan eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Ebazpenean ezarritako epeak bete ahal izateko.

Lehiaketatik baztertu egingo dira oinarriotan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskabideak.

Onartzen diren eskabideak honako balorazio irizpide hauen arabera balioetsiko dira (balorazio irizpide batzuk puntuak ematen dituzte eta beste batzuk kendu edo penalizatu):

1.	Kontratutako pertsona emakumea izatea	15 puntu
2.	Kontratutako pertsona 55 urtetik gorakoa izatea	15 puntu
3.	Kontratutako den pertsona eskualdeko udalerriren batean (Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaiian) erroldatuta egotea	10 puntu
4.	Enpresa sortu berria izatea (alta 2013-09-01etik aurrerakoa)	10 puntu
5.	Kontratutako den pertsonari egindako lan-kontratuaren iraupenak diruz lagundutako gutxieneko epea gainditzea hiru hilabetez, hau da, gutxienez 9 hilabetezkoa izatea (edo mugagabea).	5 puntu
6.	Kontratutako pertsonarekin eragindako enplegu sorrera garbia izatea gutxienez puntu batekoa, aurreko hiru hilabeteetako plantillaren batez bestekoarekin alderatuta.	5 puntu
7.	Langabeak kontratatzeke Urola Kostako Udal Elkartearen 2014ko deialdian diru-laguntza jasotako enpresa izatea.	-10 puntu

Taula horretako irizpideen arabera eskabideak baloratu ondoren eskabideen artean berdinketarik bada, honela konponduko da berdinketa: berdinduta dauden eskabideen hurrenkera erabakiko da taulako irizpideen banan-banako hurrenkeran puntu gehien dituenaren alde, hau da, lehen irizpideen puntu gehien duena aurretik; irizpide horretan berdin badaude bigarren irizpidean puntu gehien duena aurretik eta abar.

10. DIRU-LAGUNTZAK EBAZTEKO ORGANO ESKUDUNA

Diru-laguntzak emateko, zuriketak onartu eta ordainketak agintzeko eskumena dagokio Udal Elkarteko Lehendakartzari, Balorazio Mahaiaren alde aurreko txosten eta proposamena aintzat hartuta.

Halaber, Udal Elkarteko Lehendakartzari dagokio oinarri hauek interpretatzeko eskumena eta diru-laguntzen deialdi hau kudeatzen sor litezkeen gorabehera eta zalantzak argitu eta ebazteko eskumena, betiere Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren irizpide eta jarraibideen argitara.

Izapidetzen diren eskaera espedienteak 60 eguneko epearen barruan ebatziko dira, gehienez ere.

11. BALORAZIO MAHAIA

Balorazio-mahaia honako hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Udal Elkarteko lehendakaria

Mahaikide: Udal Elkarteko Prestakuntza eta Enpleguko arduraduna; Enpresen Zerbitzuen saileko teknikari bat; Udal Elkarteko idazkari-kontuhartzailea

Idazkari: Euskara eta Komunikazio Zerbitzuko arduraduna

Balorazio Mahaiaren egitekoa izango da eskabideen balorazioa egitea, oinarriotan ezarritakoaren arabera, eta diru-laguntzen proposamena egitea. Halaber, aurkeztutako zuriketen gaineko proposamena ere egingo du.

12. ENPRESA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Enpresa onuradunek honako betebeharrak dituzte:

1. Diruz lagundutako kontratazioaren justifikazioak aurkeztea deialdi honetako hamahirugarren oinarrian ezarritako eran.
2. Indarrean dauden lan arloko araubidea eta lan arriskuak prebenitzeko araubidea betetzea.
3. Eskabidean adierazitako lan-baldintzak eta lan-sari baldintzak bermatzea, lanpostuaren lanbide kategoria eta aplikatzekoa den lan-hitzarmen edo enpresa-hitzarmenaren argitara.
4. Udal Elkarteari berehala jakinaraztea (zazpi eguneko epearen barruan) diru-laguntzaren objektuari eragiten dion gorabehera oro (lanaldiaren aldaketak, kontratu-aldaketak, bajak, ordezkapenak...).
5. Diru-laguntzen jarraipena egiteko Udal Elkarteak eskatzen dizkion eta emandako diru-laguntzarekin zerikusia duten datuak eta informazioa ematea.

13. DIRU-LAGUNTZEN ZURIKETA

Enpresa onuradunek diru-laguntzaren zuriketa bi unetan egingo dute:

1. Kontratazioa egin izanaren justifikazioa aurkeztu beharko dute diruz lagundutako kontratua egin eta 30 eguneko epearen barruan. Justifikazio horretan honako dokumentuak aurkeztu behar dituzte:
 - B eranskina (oinarrien amaieran dator), behar bezala beteta. Honako dokumentuak ditu: kontratua egin izanaren justifikazioa eta lehen ordainketaren eskaera (B1) eta kontratuaren fitxa (B2). B2 eranskin bat aurkeztuko da egindako kontratu bakoitzeko.
 - Kontratutako pertsonaren NANren kopia.
 - Kontratutako pertsonaren erroldako ziurtagiria.
 - Kontratutako pertsonaren Lanbideko ziurtagiria, adierazten duena pertsona hori kontratua egin aurretik lan eskatzaile gisa Lanbiden inskribatuta zegoela.
 - Kontratutako pertsona oinarriotan zehaztutako gizatalde zehatzen batekoa izanez gero, egoera hori egiaztatzeko agiriak.
 - Kontratutako pertsonaren SEPEn erregistratutako lan-kontratuaren kopia eta Gizarte Segurantzako alta-agiriaren kopia.
 - Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egindako ziurtagirien kopiak: ziurtagiri bat agertzen duena kontratatutako pertsona laneratu aurreko 3 hilabeteetako enpresaren batez besteko plantilla; eta bestea agertzen duena kontratatutako pertsona laneratutako hilabeteko enpresaren batez besteko plantilla.

Lehen justifikazio hori aurkeztu eta ontzat jo ondoren diru-laguntzaren lehen ordainketa egingo da.

2. Diru-laguntzaren amaierako zuriketa aurkeztu behar da gehienez ere 60 eguneko epearen barruan, diruz lagundutako kontratazio-epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita, eta betiere 2016eko ekainaren 30aren 10aren aurretik. Diru-laguntza zuritu eta ordainketa egiteko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:
 - C eranskina (oinarrien amaieran dator), behar bezala beteta. Honako dokumentuak ditu: amaierako justifikazioa eta bigarren ordainketa egiteko eskaera (C1) eta kontratuaren fitxa (C2). C2 eranskin bat aurkeztuko da egindako kontratu bakoitzeko.
 - Diruz lagundutako kontratuaren epealdiko enpresaren TC1 eta TC2 dokumentuen kopiak.
 - Diruz lagundutako kontratuaren nominen kopiak.

Amaierako justifikazio hori aurkeztu eta ontzat jo ondoren diru-laguntzaren bigarren ordainketa eta likidazioa egingo da.

14. DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEA ETA ITZULKETAK

Diru-laguntza ordainduko da bi zatitan:

1. Diru-laguntzaren %70 ordainduko da diruz lagundutako kontratua egin eta 30 eguneko epearen barruan aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztu eta Udal Elkarteak diru-laguntzaren objektu den kontratazioak eskabidean adierazitako baldintzak betetzen dituela egiaztatutakoan.
2. Diru-laguntzaren gainerako %30 eskabidean adierazitako kontratazio-epea amaitu, eskabidean adierazitakoa bete eta zuriketa aurkeztu eta ontzat jo ondoren.

Diru-laguntza ordainduko da banku transferentzia bidez. Ordainketak egingo dira eskatzaileak eskabidean adierazitako kontu zenbakira, 30 eguneko epearen barruan, ordainketa bakoitza egitea onartzen den egunetik kontatzen hasita.

Diruz lagundutako kontratua ez bada egiten eskabidean adierazitako epean edo oinarri hauetako 13.1 ataleko dokumentuak ez badira aurkezten ezarritako epean, onuradunak diru-laguntzarako eskubidea galdu egingo du (eta ez zaio lehen ordainketa egingo), betiere kontratua gauzatzeko epeak luzatzeko zentzuzko arrazoirik izan ezean. Diru-laguntza galtzeko erabakia berariaz hartuko du Udal Elkarteko Lehendakariak, dagokion txostena kontuan hartuta.

Halaber, amaierako zuriaketan onuradunak ez baditu betetzen eta egiaztatzen diru-laguntza jasotzeko baldintzak, diru-laguntza galdu egingo du. Kasu horretan ere diru-laguntza galtzeko erabakia berariaz hartuko du Udal Elkarteko Lehendakariak, dagokion txostena kontuan hartuta, eta diru-laguntzaren lehen ordainketa itzultzeko prozedurari hasiera emango zaio.

Diruz lagundutako lan-kontratua amaitzen bada deialdian adierazitako gutxieneko epea edo eskabidean adierazitako epea bete baino lehen, eskatzaileak diru-laguntzaren ordaina jasotzeko eskubidea galduko du, betiere kontratua ez bada amaitu erakunde kontratatzailearen erabakiz. Kasu horretan diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da lan-kontratua indarrean egon den epearen proportzioan.

Diruz lagundutako kontratuaren iraupen-epearen barruko gaixotasun arrunten nahiz lan-gaixotasunen ondorio diren bajak ez dira diruz lagunduko, betiere bajaran dagoen langilea ordezkatzeko ez bada. Kasu horretan kontratazio epeak lagunduko dira soilik. Gisa horretako gorabeherak Udal Elkarteari jakinarazi behar zaizkio, deialdi honetako 12. oinarriaren arabera.

15. BALDINTZAK EZ BETETZEA

Deialdiak nahiz eskatzailearen eskabideak adierazitako baldintzak betetzen ez badira eta ez betetzea enpresa onuradunari nahiz diru-laguntza bidez kontratatutako pertsonari baldin badagokio, eskatzaileak esleitutako diru-laguntzaren ordaina jasotzeko eskubidea galduko du, arrazoitutako ebazpenaren bidez.

Halaber, zuriaketa onartu eta ordainketa egin ondoren Udal Elkartek atzematen badu onuradunak baldintzak ez dituela bete, diru-laguntza itzultzeko espedientea bideratuko du Udal Elkartek, baldintzak ez betetzeagatik, indarrean dagoen araubideak ezartzen duenaren argitara.

16. BESTE DIRU-LAGUNTZA EDO LAGUNTZA BATZUEKIN BAT ETORTZEA

Deialdi honen bidez emango diren diru-laguntzak bateraezinak dira kontzeptu eta xede berbererako administrazio edo erakunde publiko zein pribatuek emandako beste edozein diru-laguntza edo laguntzarekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariekin izan ezik.

17. DATU PERTSONALEN BABESA

Izaera Pertsonaleko Datuak Babestekoa den abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak arautzen duena betetzeko, Urola Kostako Udal Elkartek deialdi honetan arautzen diren laguntza-eskaeren bidez eskuratzen dituen datu pertsonalak jasoko ditu “prestakuntza eta enplegu programak” eta “eskualdeko enpresak” izeneko fitxategietan. Fitxategi horiek arautzen ditu Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordearen 2010eko otsailaren 4ko akordioak (Urola Kostako Udal Elkartearen datu pertsonalen fitxategiak arautzeko akordioak).

Datuak laga ahal izango zaizkio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, oinarri hauek arautzen duten diru-laguntza-deialdiaren programa burutu ahal izateko Udal Elkarteari erakunde horrek emandako diru-funtsa zuritzeko.

Horrez gain, pertsona interesdunek datuak eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta haien aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte, honako helbidera idatzia bidalita: Urola kostako Udal Elkartea, Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz.

18. ERREKURTSOAK

Oinarri hauek onartzeko ebazpenak amaiera ematen dio administrazio bideari. Beraz, akordio horren aurka, batetik, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, hilabeteko epearen barruan, edo, bestetik, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epearen barruan. Epe horiek zenbatzen hasiko dira oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean. Errekurtso horiek aurkezteak ez die kalterik egiten interesdunek egoki irizitako bestelako errekurtso edo eginbideei.

EGINBIDEA:

Eginbidea, nik, Urola Kostako Udal Elkarteko idazkari-kontuhartzaileak egina, jasota uzteko diru-laguntzen oinarri hauek Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakariak onartu dituela, 2015eko abuztuaren 18ko B15-00080 zenbakiko ebazpenaren bidez.

Zarautzen, 2015eko abuztuaren 18an